

ORITZ:

Duela gutxi, Lauaizetako Oritz Barrenetxea ikaslea, Argentinan egon da.

Han bertan hilabete motz bat pasa duela bere familiarekin kontatu digu.

Argentinan gauza asko bisitatu ondoren gehien gustatu zaiona hondartza eta festa giroa izan da, adibidez, urtetebetzeak han eta hemen oso desberdinak direla aipatu du, hau da, etxetik afalduta joaten zara eta ondoren festa giroa egoten da.

Bestalde, gutxien gustatzen zaiona kotxeak zaharrak direla eta kable guztiak ikusgai daudela. Beste desberdintasun bat Euskal Herria eta Argentinaren artean da, etxeak eta ingurumena zaharrak direla komentatu digu. Hango etxeak konparatuta hemengoak baino handiagoak dira. Argentinan

uda da baina zoritxarrez, eguraldi kaxkarra tokatu zitzaien, tenperatura altua izan arren. Berez 2022 urtean joateko asmoa zuten baina familiako kide bat gaizki xamar ibili denez azken boladan, aurten joatea erabaki zuten. Azkenik, esan beharra dago, 4 orduko diferentzia dagoela Argentina eta Euskal Herria artean, ondorioz, errutinara bueltatzea kostatu zaio.

